

### PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	IBILGAILUEN ELEKTRIZITATEKO OINARRIZKO TEKNIKAK	Iraupena	90
Kodea	MF0624_1		
Lanbide-arloa	GARRAIOA ETA IBILGAILUEN MANTENTZE-LANAK		
Lanbide-eremua	Ibilgailuen elektromekanika		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Ibilgailuen elektromekanikako mantentze-lan osagarriak	Maila	1
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Oinarrizko mekanizazioa (Zeharkakoa)	Iraupena	90
	Ibilgailuen mekanikako oinarrizko teknikak		90
	Ibilgailuen elektromekanikako mantentze-lan osagarrietako lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		40

#### A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator UC0624\_1: IBILGAILUAREN ELEMENTU ELEKTRIKO SINPLEAK DESMUNTATZEA, MUNTATZEA ETA ORDEZKATZEA gaitasun-atalarekin.

#### B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

##### Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

A1: Ibilgailuaren karga- eta abio-sistemen oinarrizko mantentze-lanak egiteko beharrezko ekipoekin eta baliabideekin lan egitea, ezarritako prozeduren arabera behar diren baliabide eta ekipoekin.

E11.1 Magnitude, neurketa elektrikoko unitate eta neurtzeko aparatu nagusiak ezagutzea.

E11.2 Ibilgailuaren karga- eta abio-sistemen oinarrizko elementuak identifikatzea.

E11.3 Kasu praktikoetan (ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela), bateria, bujiak eta haien kableak, alternadoreak eta abio-motorrak desmuntatzea eta muntatzea.

E11.4 Bateria eta elektrolitoen egoera egiaztatzea eta bateriak berriz kargatzea.

E11.5 Sistemaren funtzionamendua berrezarri dela egiaztatzea, konponketa egin eta behar bezala ikuskatu ondoren.

E11.6 Prozesuetako faseetan erabili beharreko ekipoak martxan jartzea.

A2: Ibilgailuaren sistema elektriko osagarrien oinarrizko mantentze-lanak egiteko beharrezko ekipoekin eta baliabideekin lan egitea, ezarritako prozeduren arabera.

E12.1 Ibilgailuaren sistema elektriko osagarrien oinarrizko elementuak identifikatzea.

E12.2 Kasu praktikoetan (ezaugarriak behar bezala zehaztuta daudela), elementu hauek desmuntatzea eta muntatzea:

- Argi konbentzionalak.
- Lanparak eta fusibleak.
- Turutak eta haizetako-garbigailuaren motorrak.
- Etengailu eta kommutadore konbentzionalak.

E12.3 Argiak erregulatzeko lanak egitea.

E12.4 Sistemaren funtzionamendua berrezarri dela egiaztatzea, konponketa egin eta behar bezala ikuskatu ondoren.

E12.5 Prozesuetako faseetan erabili beharreko ekipoak martxan jartzea.

A3: Garbitasun-arauak, hondakinak biltzeko eta sailkatzeko arauak, segurtasun-arauak eta eguneroko mantentze-lanetako arauak betetzea.

E13.1 Lantegia, lan-lekuak, erremintak eta makineria garbitzea.

E13.2 Makinen, ekipoen eta erreminten automantentze-lanak egitea.

E13.3 Lanean sortutako hondakinak biltzea eta sailkatzea, hondakinak biltegitzeari buruz ezarritako arauak errespetatuz.

E13.4 Lantegiko segurtasun-arau guztiak (banakakoak eta kolektiboak) identifikatzea eta guztiz betetzea, eta arropa eta norbera babesteko elementu egokiak jantzea.

##### Edukiak

##### 1. Ibilgailuaren oinarrizko sistema elektrikoak.

- Unitateak eta magnitudeak (intentsitatea, tentsioa, erresistentzia).
- Neurketa-aparatu sinpleak.
  - Proba-lanpara eta polimetroa.
  - Bateria-egiaztagailua.
  - Bateria-kargagailua.
- Abio- eta karga-sistema. Bateriak. Abio-motorra eta alternadorea.
- Pizte-sistema. Bujiak, alta-kableak.

- Fusibleak eta erreleak.

## 2. Ibilgailuaren sistema elektriko osagarriak.

- Masa-sistema eta kable-sareak.
- Argiak. Lanpara-motak.
- Haizetako-garbigailuaren motorrak, kristal-jasogailuak eta itxiturak.
- Oinarrizko mantentze-lanak.
  - Lanparak eta fusibleak, terminalak, eta kable solteak, lasaiak eta sulfatodunak aldatzea.

## 3. Automobilgintza-lantegian laneko eta ingurumen-inpaktuko arriskuak prebenitzeko arauak.

- Automobilgintza-lantegiko arriskuak:
  - Makinen eta erreminten segurtasun-ezaugarriak.
  - Karga eta objektu ebakitzailak erabiltzea.
  - Segurtasun-seinaleak.
- Instalazio, makineria, ekipo eta erreminten garbiketa eta mantentze-lanak:
  - Lan-eremuen garbiketa eta ordena.
  - Garbitu beharreko gainazaletarako egokiak diren garbitzeko produktuak erabiltzea.
  - Hondakinak biltzea, sailkatzea eta eramatea. Edukiontziak eta biltegia.
  - Lantegiko erreminta, ekipo eta armairuen mantentze-lanak eta ordena.
- Norbera babesteko ekipoak (NBEak). Babes kolektiboko ekipoak eta neurriak.

### C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Ez dago sartzeko eskakizunik.

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Ibilgailuen elektromekanikako mantentze-lan osagarriak